

DADko bazkide eta adiskideei Bizkaiko Golkoan belaontzian nabigatzeko aukera eskaintzen zaie itsasoa zuzen-zuzenean sentitzeko, gauez ilargitan itsastatzeko eta bela-nabigazioaren hastapenetan murgiltzeko, nahiz eta ez izan aurretiko ezaupide edo eskarmenturik

La Victoire itsasaldian/estropadan parte-hartzea, Lafayeteko markesak 1777an Bordeletik Pasaiaira egin zuen bidaldia gogora ekartzeko.

Itsasketa: Eskarmentu handiko patroidun belaontzietan, segurtasuneko eta ontziratzeke legeko neurri guztiak betez. 8/12 tripulatzaileraino belaontzi bakoitzean (luzeraren arabera). Itsasaldia beste belaontzi batzuekin (gutxi gorabehera 25ekin) batera egingo da. Hona hemen horietako baten argazkia:




Planteaturiko jarduera:

Maiatzaren 18a, ostirala: 16:30etik 17:00etara talde-bisita gidatua **L'Hermione**ren barrura; fragata ikusgarri hau Lafayetkek AEBetara bigarren aldiz joateko erabili zuenaren erreplika zehatza da eta Pasaian ainguraturik egongo da. Ondoan doa argazkia.




Pasai Donibanen paseoa, animazio handiarekin 'Pasaia, Itsas Festibal'eko jarduerengatik, asteburu horretan izango dira eta.

20:00ak inguruan itsas afaria, eta marinela onak bezala, parte-hartzaile guztiok ardoaz edo/eta ronaz topa egingo dugu Pasai Donibanen. Musika-kontzertura joango gara. Belaontzian lo egingo da, Donibaneko kai edo ontziralekuan lotuta.



Maiatzaren 19a, larunbata: Itsasaldiko/estropadako belaontzi guztiak (denak batera) irtengo dira belaz 11:00 a.m.tik aurrera Pasai Donibanetik. Itsasaldia hasiko da.

Itsasketa: 150 milia gutxi gorabehera sentsazioak partekatzeko eta itsasketa-teknikak ezagutu eta ikasteko. Nabigazioa belaz bakarrik egingo da eta gutxi gorabehera 30/35 orduko iraupena izango du.



Maiatzaren 20a, igandea: Port Medoc-era (Gironde) helduko gara. Ondoan doa argazkia.



Maiatzaren 21a, astelehena: gaua belaontzietan igaro eta gosaldu ondoren, paseoa inguruetan eta zehazki Pointe de Grave, Cordouan-eko Faro Museoa eta Faroak eta Balizak ikusiko ditugu, eta Lafayetteren egungo monumentua, soldadu alemanek 1942ko maiatzaren 30ean suntsitu zuten jatorrizkoaren gainean berreraikia.



Pointe de Gravetik Cordouango Faro edo itsasargia ikusten da.



13:00ak inguruan bazkaria inguruko (Medoc-Bordele) produktu eta ardoarekin Port Medoc-en. 16:00/17:00etan Donostiara itzuliko gara errepidez (antolatzaileen autobusean). Donostiara 20:00ak aldera iritsiko gara.

Prezioa pertsonako: 400€ (DAD subvenzioa izango duzue)

Argibide gehiago: Tfnoa. 618323963 Helb. elektronik.: Hnabigatzaileak@gmail.com



"La Victoire" estropada/itsasaldiaren azalpena

Datorren maiatzaren 19an, larunbatean, eta Cercle Nautique du Verdon-ek eta HN Hondarribiko Nabigatzaileak-ek elkarrekin antolatuta, "La Victoire" itsasaldiaren /estropadaren hirugarren edizioa izango da.

Itsasaldi/estropada honek "La Victoire" izeneko belaontzian Lafayette markesak (frantziar eta amerikar heroi nazionalak) 1777. urtean Bordele eta Pasaia artean egindako itsasketa gogorarazten du, ingelesez aurka amerikar independentistei laguntzeko Estatu Batuetara egin zuen lehen bidaiaren aurretiko urratsa izan zelarik.

Maiatzaren 18an, ostiralean, irteeraren bezpera, La Victoire-n parte hartzen dugun guztiontzat bisita gidatua izango dugu L'Hermione fragatara, hemen egin zuelarik Lafayette markesak bere bigarren bidaia Estatu Batuetara. Pasai Donibanen bisita-paseoa egingo dugu Pasaia Itsas Festibalearen inguruko ospakizun-giroa ikusteko, eta ondoren, itsas afaria Donibanen bertan, patxadaz jan, edan eta musika-talde baten emanaldiaz gozatzeko. Topa egingo diogu biharamuneko bideari.

Maiatzaren 19an, larunbatean, irteera ikusgarria ubidean 11:00ak aldera L'Hermione-ren eta beste itsasontzi tradizional batzuen aurrean.

Gutxi gorabehera 150 miliatan euskal kosta eta Akitania osoa (Landak, Arcachon) igaroko ditugu Girondako estuariora (Port Medoc) iristeko.

Maiatzaren 21ean, astelehenean, gosalduta eta inguruetan (Pointe de Grave, Cordouango Faroaren Museoa, Faroak eta Balizak, Lafayette-ren monumentua ikusiz) paseatu ondoren, sariak emateko asmoa dago.

4 modalitate daude La Victoire-n parte hartzeko: Bakarkakoak, Bikoitza, Open (eskifaia osoa) eta Multikroskoak (Ondoan doa Multi 50 Arkema-ren argazkia, Lalou Roucayrol-ena da, iaz La Victoire irabazi eta Transat Jacques Vabre ere irabazi zuenarena).



4 kategorietan lehenengo sailkatuek beren izena inskribatuko dute antolatzaileek Pasaiako Udalari lagatako La Victoire maketan, udalak ikusgai daukalarik ohorezko leku batean Pasai Donibanen.

Baina benetan garrantzitsua itsastatzea denez, ibilaldia amaitzen duten belaontzi guztiek trofeo polit bat jasoko dute. Bilbotik Arroxelaraino kostako itsasontzien parte hartzea espero da. Autobusak antolatuko dira joan-etorrietarako.